

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO LEHIAKORTASUNAREN DIAGNOSTIKOA 2023

ONGIZATEA HELBURU DUEN
LEHIAKORTASUNA BIZKAIAN
Laburpen exekutiboa



Txostena online eskuratzea

Bizkaiko Lurralde Historikoko Lehiakortasunaren 2023ko Diagnostiko osoa PDFn dago eskuragarri, gaztelaniaz eta euskaraz, Orkestraren web orrian:

<https://www.orkestra.deusto.es/eu>

DOI: <https://doi.org/10.18543/QRTC8939>

Bizkaiko Lehiakortasunaren Behatokirako sarbidea

Txosten honetan aurkeztu ditugun adierazleen eguneratzeak, denbora errealean, helbide honetan kontsulta ditzakezu:

<https://www.orkestra.deusto.es/>

[bizkaiaorekansakonduz-observatory/eu/](https://www.orkestra.deusto.es/bizkaiaorekansakonduz-observatory/eu/)

© Lehiakortasunerako Euskal institutua - Deusto Fundazioa



Mundaiz 50, E-20012, Donostia-San Sebastián
Tel.: 943 297 327. Fax: 943 279 323
comunicacion@orkestra.deusto.es
www.orkestra.deusto.es

© Deustuko Unibertsitateko Argitalpenak

1 posta-kutxa - 48080 Bilbao

Helbide elektronikoa: publicaciones@deusto.es

Laburpen exekutiboa

Bizkaiko diagnostiko honek lurraldearen lehiakortasuna eta bertan bizi diren pertsonen ongizatea ditu aztergai. Adimenari lotutako tresna bat da, lurraldearen etorkizuneko estrategia eraikitzeko lagungarria, ziurgabetasun handiko ingurune ekonomiko globalean. Diagnostikoak Orkestrak landutako ongizatea helburu duen lehiakortasun esparrua aplikatzen du, lurraldeko ongizatearen emaitzetan eta ekonomia eta enpresa emaitzetan sakontzeko. Gainera, gobernuek, enpresek eta beste eragile batzuek emaitza horietan eragiteko erabil ditzaketen palankak aztertzen ditu, Bizkaiko egiturazko ingurune zehatza kontuan hartuta.

2021ean egindako lehen diagnostikoan ez bezala, oraingo azterketan, gaur egungo erradiografia lortzeaz gainera, bilakaera ere aztertu dugu, COVID-19aren krisiak eta beste zenbait alderdik, horien artean, energia prezioen gorakadak, Bizkaiko lehiakortasunean eta ongizatean izan duten eragina ulertzeko. Hala, diagnostikoak galdera hauei erantzuten die:

- **Nolako eragina izan dute 2020ko krisiak eta ziurgabetasuna eragiten duten maila globaleko beste elementu batzuek Bizkaiko lehiakortasunean eta ongizatean?**
- **Nolakoa izan da lurraldearen susperraldia epe laburrean?**
- **Zein erronkatan jarraitu behar da lanean epe ertain eta luzean?**

Galdera horien erantzunak ongizatea helburu duen lehiakortasuna aztertzeko erabiliko dugun esparruaren atal bakoitzaren inguruan egituratzen dira:

Egiturazko ingurunea:

- Bizkaia dentsitate demografiko handiko lurraldea da eta horrek jakintza garatzen eta zabaltzen laguntzen du. Era berean, zahartze tasa handiko lurraldea da. Azken urtean, Bizkaian biztanleriak gora egin du, lan egiteko adinean dagoen biztanleria atzerritarraren hazkundearen ondorioz. Alderdi hori, nahikoa ez bada ere, positiboa da **erronka soziodemografikoari** aurre egiteko, jakinik erronka horrek eragina duela bai ongizatean eta bai lurraldeko ekonomiaren lehiakortasunean.
- Egitura ekonomikoari dagokionez, Bizkaiko indarguneetako bat **merkataritzako zerbitzu aurreratuen** esparruan dago, jakintzan intentsiboak diren enpresa zerbitzuak ere barne hartuta, hain garrantzitsuak industria sektorerako. Izan ere, zerbitzu aurreratuen eta jakintzan intentsiboen sektore bat edukitzea lehiatzeko abantaila iturri da, industriari balioa ematen baitio. Bizkaia, esparru horretan, oso

ongi kokatuta dago, bai zerbitzu aurreratuetan eta bai merkataritzako zerbitzu aurreratuetan. Bilakaeraren azterketak erakusten du, nahiz eta azken urteetan lurraldeak industria enplegua galdu, industriaren eta zerbitzu aurreratuen baterako balio erantsi gordinak goranzko joera duela eta krisiaren aurreko balioen gainetik dagoela.

Ekonomia eta enpresa emaitzak

- Krisiaren eragina **ekonomia errendimenduaren** eta **enpresa errentagarritasunaren** inguruko adierazle nagusietan nabaritu da. Hala, 2020an, biztanleko BPGk eta produktibitatearen adierazleek behera egin dute, bai ekonomian oro har, eta bai industrian ere. Gauza bera gertatzen da enpresa errentagarritasunari dagozkion adierazleetan ere. Nolanahi ere, azken datuek erakusten dute Bizkaiak dagoeneko berreskuratu eta gaintitu dituela krisiaren aurreko mailak, eta hori lurraldeko eta bertako enpresen epe laburreko erresilientziaren erakusle da, ekonomiaren lehiakortasunari dagokionez.
- Lurraldeak kokapen ona du enpresen **berrikuntzan** eta, batez ere, produktuaren berrikuntzan, nahiz eta esparru horretan oraindik ez diren berreskuratu 2020aren aurreko mailak. Prozesuari lotutako berrikuntzari dagokionez, atzera egin da, pixka bat. Bizkaiko enpresa espezializazioa ikusirik, berrikuntza mota hori oso garrantzitsua da lehiakortasunerako eta, horregatik, ezinbestekoa da arlo horretako ekintzak indartzea. Ekintzailatza berritzaileenari dagokionez, nabarmentzekoa da Bizkaiak esparru horretan duen kokapena, 2019ko tasak gaintitu baititu.
- COVIDaren krisiak eta energia prezioen igoerak eragin handia izan dute lurralde guztietako **nazioartekotze** adierazleetan, eta eragin hori are nabariagoa izan da Bizkaian, bertako sektore osaera dela eta (zerbitzuetan eta energia sektorean espezializatuta egotea). Horrela, Bizkaiak ondasunen merkataritza saldo negatiboa du, eta adierazle horrek gainerako lurraldeetan baino bilakaera okerragoa du. Gainera, ikusten da esportazioen bolumenak enpresa gutxi batzuetan (energia sektoreari lotutakoetan, zehazki) kontzentratzeko joera duela. Horrenbestez, lurraldearen erronken artean dago enpresa txiki eta ertainen nazioartekotzeari laguntzea eta sektore jakin batzuekiko mendekotasuna murriztea, esportazioak dibertsifikatzeko estrategiez baliatuz. Horretarako onuragarria izango da lurraldeko enpresa traktoreetan palanka efektuko estrategiak eta lurraldeko bitarteko eragileek, lagundutako baterako estrategiak lantzea. Alderdi positibo gisa, nabarmentzekoa da 2019az geroztik gora egin duela enpresa esportatzaile erregularren kopuruak, baita esportazioek BPGrekiko hartzen duten ehunekoak ere.

Pertsonen ongizatea

- Krisiaren eragina **bizitza materialari** lotutako adierazleetan nabaritu da, batez ere, errenta pertsonal erabilgarrian. Hala ere, errenta pertsonal erabilgarrian izandako beherakadarekin batera, desberdintasun ekonomikoak murriztu egin direla aipatu behar da eta horrek agerian uzten du gizarte babeserako erabili diren politiken garrantzia. Lurraldearen susperraldia sendotzeko, beharrezkoa izango da enpresen susperraldi ekonomikoa Bizkaiko pertsonengana eramatea.
- Pertsonen ongizatea neurtzeko, laneratze maila eta lana aurkitzeko erraztasuna erabili ohi dira. Ildo horretatik, Bizkaiko **langabezia tasak** krisiaren aurrekoak baino hobeak dira, eta hori lurraldearen erresilientziaren adierazgarri da. Gainera, emakumeen langabezia tasak bilakaera positiboa izan du; aurrerapen adierazgarria da hori, generoari dagokionez.

- **Ikaskuntza** ere ongizatearen dimentsioetako bat da eta, kasu horretan, Bizkaiak bilakaera positiboa izan du eta, gainera, beste lurralde batzuekin alderatuta, indargunetzat har dezakegu. Generoari dagokionez ere, ongi kokatuta dago. Etengabeko ikaskuntza ere indargune bat da lurraldean eta horrek etorkizuneko ongizatea berma dezake.
- Ongizatearen dimentsioen artean, **ingurumenak** ditu erronkarik handienak. Azken urteotan Bizkaiak CO₂ isuriak murriztu dituen arren, bide horretan aurrera egiten jarraitu behar du, bereziki lurreko mugikortasunean. Beraz, mugikortasunaren ondorio diren isuriak murriztera bideratutako estrategiek eragin positiboa izango dute lurraldean. Bizkaiak beste adierazle batzuetan beste lurralde batzuek baino kokapen okerragoa du. Halaxe gertatzen da, esate baterako, airearen kalitatean eta hondakinak sortu eta birziklatzean. Arrazoi hori dela eta, ingurumenaren erronkak garrantzi handia du eta modu sistemikoan lantzen jarraitu behar da.

Ongizatea helburu duen lehiakortasunerako palankak

Ongizatea helburu duen lehiakortasunerako esparruak sei palanka definitzen ditu. Horien gainean eragin dezakete gobernuek, enpresek eta beste eragile batzuek, ekonomia eta enpresa emaitzetan eta ongizatearen emaitzetan aurrera egiteko: i) kapital naturala, ii) kapital fisikoa, iii) finantzaketa, iv) jakintza, v) giza kapitala eta vi) gizarte eta erakunde kapitala. Palanka horiek Bizkaian dituzten ezaugarriak jasotzen dituzten adierazleak aztertuz gero, honako indarguneak eta hobetzeko arloak ikus ditzakegu:

Indarguneak	Hobetzeko arloak
• Finantzaketa palankaren barruan, nabarmentzekoa da lurraldeak atzerriko kapitala erakartzeari dagokionez duen kokapena eta bilakaera. Atzerriko kapital horrek enpresen hazkundera eta berrikuntza bultzatzen ditu, betiere atzerriko parte hartzeak kapitalean duen pisua eta enpresek lurraldearekiko duten errotzea eta konpromisoa orekatzea bilatuta. Enpresaren ondare garbia berreskuratu dela ere azpimarratu behar da, enpresen emaitzek hobera egin dutelako. • Jakintzaren palankari dagokionez, lurraldean jakintza zientifikoren sorkuntza nabarmentzen da, bertan kontzentratzen baitira jakintzari lotutako erakunde asko. Era berean, ingurumenari lotutako teknologietan lortu diren patenteak aipatu behar dira, aktibo bat baitira trantsizio berdean aurrera egiten jarraitzeko. • Bizkaiak ageriko indarguneak ditu giza kapitalean, bai enplegu tasari begiratuta —2019an baino kokapen hobe du— eta bai lan merkatura hurbiltzen diren gazteen prestakuntzan, bereziki emakumeen kasuan. • 2020ko krisiak ez dio eragin gizarte eta erakunde kapitalari; aitzitik, adierazleak hobeak dira orain, bai herritarrek erakundeekiko duten konfiantzari begiratuta eta bai enpresa txiki eta ertainen arteko lankidetzari begiratuta, gizarte kapitalaren neurria dela jakinik.	• Finantzaketaren palanka ikusten da krisiaren eraginak administrazio publikoen zorra handitzea ekarri duela; igoera hori arrazoizkoa da, krisi garaian gizarte babeseko politikak ezarri direlako. • Jakintzaren palankan, hobetzeko arloen artean dago I+Gko gastuaren bilakaera, BPGren ehunekoa neurtua. Berrikuntza prozesuaren input hori ez da BPGren proportzio berean handitu. • Kapital naturalari dagokionez, energiaren azken kontsumo gordinetan energia berritzagarriek hartzen duten kuotak okerrera egin du Bizkaian: 2022an, kuota horren joera positiboa eten egin da, lurraldea energia sektoreetan espezializatuta dagoelako. Alderdi hori energia eta klima trantsizioaren erronkari lotuta dago eta horretan lan egiten jarraitu behar da.

Laburbilduz, COVID-19aren krisiak eta azken bi urteetako beste gertakari batzuek, bereziki, energia prezioen igoerak, eragina izan dute Bizkaiko ekonomiaren lehiakortasunean eta herritarren ongizatearen hainbat dimentsiotan, esate baterako, bizitza materialean. Hala ere, **lurraldea erresilientea da eta, neurri handi batean, krisiaren aurreko kokapena berreskuratu du epe laburrean, baita gainditu ere, adierazle batzuetan.**

Etorkizuneko erronka nagusia hauxe da:

- Susperraldi ekonomikoa lurraldeko pertsonen ongizatean islatu dela ziurtatzea.
- Epe ertain eta luzeko erresilientzia lantzea, susperraldiaren iraunkortasuna bermatzeko eta, aldi berean, lurraldeak dituen funtsezko erronkei eta sortzen ari direnei aurre egiteko.

Funtsezko erronken artean, trantsizio demografikoaz gain, energia eta klima trantsizioari lotutakoak eta nazioartekotzearen esparrukoak nabarmentzen dira. Horretarako, Bizkaiak hainbat indargune erabil ditzake, horien artean nabarmentzekoak dira merkataritzako zerbitzu aurreratuetan duen espezializazioa, oso garrantzitsuak baitira industriadako; pertsonen etengabeko ikaskuntza; jakintza zientifikoaren sorkuntza eta ingurumenaren arloko espezializazio teknologikoa; eta gizarte kapitala eta erakundeekiko konfiantza.



Orkestra

LEHIAKORTASUNERAKO
EUSKAL INSTITUTUA
DEUSTO FUNDAZIOA